

## Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

## Izar bat jaio da: FBI



Ezkerrean, FBIko agenteak, bulegoko buruak agindutako janzkeraz. Goian, Edgar Hoover, agindu hura eta beste asko eman zituen gizona.

WASHINGTON, 1908. Uztailaren 26an, AEBetako Justizia Ministerioko buru Charles Bonapartek ordura arteko ohitura eten eta zerbitzu sekretuei konturik eman behar ez zioten agente taldea kontratatu zuen. 34 lagun ziren eta *Bureau of Investigation* delakoa osatu zuten.

Lehen Mundu Gerran, herrialde etsaietako etorkinak zelatatzen jardun zuten buru-belarri. 1929ko porrot ekonomiko ezagunak, ordea, gero eta lasaiago zebiltzan gangsterrei begira jarri zituen bulegoko agenteak. Bigarren Mundu Gerran, sabotajea, subertsioa, espioitza eta desertzioa bilakatu ziren taldearen jomuga.

Ordurako J. Edgar Hoover zen zuzendaria; ia 50 urte emango zituen karguan. Hark eman zion taldeari gaurko izena (*Federal Bureau of Investigation*) eta, neurri handi batean, izana. Erakundearen itxura behintzat ederki zaindu zuen; besteak beste, agenteak gero hain berezkoa bilakatu zitzaizkien janzkera eramatera behartu zituen: trajea, gorbata eta kapela, eta neguan gabardina eta beroki luzea.

Gerra amaituta, sobietarrak bilakatu ziren etsai nagusi, eta mehatxu gorria edonon ikusten zuten Hooverren gizonak. Sukar antikomunista Sorgin Ehiza deitutakoarekin iritsi zen gailurrera. Intelektualak kriminalak bailiran tratatzen zituzten bitar-

tean, J. Edgar Hooverrek benetako kriminalekin, Mafiako buruekin, afaldu ohi zuen jatetxe ezagunetan.

Baina abila zen FBIko burua bere gainerako susmoak uxatu –besteak beste, homosexuala izatea, publikoki joera hori gaitzetsi eta horren aurka jazarri arren– eta besteei egotzen. Hollywoodeko hainbat izar estu hartzen zituela, FBI bera pantailako izar bihurtu zuen.


1959an hasi ziren *The untouchables* telesaila emititzen, Elliot Nessen gorabeherak kontatuz. 60ko hamarkadan gorbata eta kapeladun heroiak pantailan ugaltzen ziren bitartean, bulegoak ez zuen hamarkadako kasurik garrantzitsuenak argitzea lortzen: Kennedy eta Luther Kingen hilketak. Hoover 1972an hil zen eta harekin batera amaitu zen mende erdiko agintaldi zorrotza. FBIk ez zuen berriro izango hamarkada haietan lortutako boterea.

1974an, Watergate eskandaluan, CIA izan zen protagonista. 2005. urtera arte ez genuen jakin kasu hartako giltzarria, *Deep Throat* (Eztarri Sakona) ezizenez ezaguna, Mark Felt zela, orduko FBIko bigarren burua.

Ehun urtean, munduko agenterik ezagun eta mediatikoenak, haien inguruko film eta telesailak bezala, izugarri ugaltu dira. 34 lagunentzako bulegotxo hark 30.000 langiletik gora dauzka egun. ■

## ARRASTOAK

**MACHU PICCHU**ren aurkuntzaren historia aurki alda daiteke, Mendebaldeko ikuspegitik beti ere. 1874ko mapa alemaniar batean hiri inka argi eta garbi adierazita agertzen da. Horregatik, historialari talde batek “meritua” August Berns alemaniarri eman dio, eta Hiram Bingham orain arteko deskubritzaile ofizialari kendu. Beste batzuek, aldiz, Peruko herritarrek besteak beste, ez diote ez bati ez besteari inolako meriturik aitortzen, haien ustez biak hala biak espoliatzaile hutsak izan zirelako.



Goian, Macchu Picchu. Horren azpian, Hiram Bingham, orain artean arrastoen deskubritzailetzat jo izan dena.